

**Madarikazioa**

1. Sin.: Juramentua; Arnegua. Norbaitek, bere amorru biziaren adierazgarri, botatzen duen hitz gogor eta gordina, zuzenean inoren aurka ez bada ere. Ik. Juramentua.

2. Sin.: Biraoa; Gaitzespena. Norbaiten jokabidea edo jertakariren bat zapuzteko eta kondentzeko erabiltzen den esakunea. Esate baterako, nork bere jaioteguna "zapuzteko" erabiltzen duena.

3. Sin.: Biraoa. Pentsaera magikoan, norbaiti edo zerbaiti kalteren bat opa izatea, \*biraoa botatzeak berez eragina izango duelako ustetan.

4. Erlijiozko pentsaeran, norbaiti edo zerbaiti, egindako okerren edo bekatuengatik, Jainkoagandik etorriko zaion zigorra jakin eraztea da. Batzutan norberak atsegina hartuz adierazten da, gurariaren azalpen gisa: hau da, Jainkoak eman diezaiola dago-kion zigorra.

Ik. Bedeinkapena.

**Magia**

Gizakiak bere nahierara bere ingurua eskuperatzeko, zientziek arrazoimenaz kanpotzat jotzen dituzten eta liluramendutik hurbil dauden baliabideak erabiltzen ditue-nean, magia dagoela esan ohi da.

Frazer etnologoak bereizi egiten ditu magia eta \*erlijioa; horren eritziz, aurrena uste honetan oinarritzen da: eragilearen eta eraginaren artean lotura hutsezina dagoen uste ustelean; erlijioa, berriz, \*otoitzean oinarritzen da, eta otoitzak beti darama ziurtasunik ezaren elementua. Beste fenomeno-ologo batzuk nahasi egiten dituzte funtsean erlijioa eta magia, biak supernaturalismoan oinarritzen omen direlako. Baina erlijioan gizakiak, munduan agintzen duen jainkozko Nahian jartzen du uste ona. Magiak, berriz, gizakiaren menpe jarri nahi du jainkozkoa.

Animismoa dago edonolako magiaren oinarritan: gauzetan ustez dauden indar ez-sentipenezkoak bereganatu nahi ditu gizakiak magiaren bidez: magoak uste du bere errito magikoetan dagoen indarrak eragin automatikoa duela. \*Biziaren eta \*heriotzaren gain, osasunaren eta \*eritasunaren gain, \*izadiaren emankortasunaren eta agortasunaren gain, eguraldiaren gain, animalia ongarrri eta kaltegarrien gain eragina lortu nahi du magoak.

Magia beltza eta magia zuria bereizi ohi dituzte: gizartearen kalterako ala onerako erabiltzen den kontu. Ik. Magia beltza; Magia zuria.

Magiazko indarrari eragiteko erabiltzen diren baliabideei begiratuz, berriz, magia-moduok bereizi ohi dituzte: Ukituzko magia, gauza, lagun edo animalia baten gaineko eragina haren parterean bat ukituz eta erabiliz lortu uste denean; analogiazko magia, antzekoak antzekoaren gain eragin eta indar berezia duela uste duena; horrela, urruti irudikatzen duena beste nonbat benetan gertatuko dela uste bait du magoak; transmisiozko magia: \*izenaren edo bestelako hitz jakinen bidez eragina luzatu nahi denean.

Erlijioaren eta magiaren desberdintasuna, buru-mailan eta hasteko, argia baldin bada ere, historian zehar erlijio gehienetan gertatzen da magiara erortzeko arriskua, batez ere \*erlijiozikunetan: Jainkoarekiko zerbitzua izan beharrean, helburu magikoak lortzeko baliabide izan nahi dutenean; herri-sinesteetan ere sarritan aurkitzen dira zabaldurik magiazko kontzeptu eta joerak. Horregatik erlijio ofizialak, magia ukatzen dutenak, erne egon ohi dira horrelako joeren kontra. Ik. Erlijioakera herritarra.

Euskal erlijioakera zaharrean sineste eta ihardun magiazkoak eurrez aurki daitezke, aztiapenezkoekin batera. J.M. Barandiaranek horrelako hainbat bildu ditu bere Diccionario de mitologia vasca liburuan, Aztikeria tituluaren pean; horietako hainbat ariketak bizirik dirau kristauen artean ere, itxuraz aldatuak bada ere. Esate baterako, \*oinaztarria ("oinaztuaren harria") uxatzeko, etxeko ataurrean haizkora ahozgora ipintzea.

Batez ere, hainbat \*eritasun osatzeko ariketa magikoez baliatzea oso zabaldua egon da Euskal Herrian: gatz-aleak sutara botatzen erlakiztena lehertu edo karatxoa desgingo dela uste izatea; edota karatxoa garrialeaz igurtzi eta hau usteltzean hura ere suntsituko dela sinesteak.

Hainbat sendabelarren erabilerak ere kutsu magikoa du, erabili ondoren usteltzen edo lehortzen utzi behar bait dira orduan sendatzeko beren eragina ukan dezaten. Era berean, biraoak edo \*madarikazioak eragin magikoa omen du, \*izena esateak horrek adierazten duen gauza edo izakia erasaten omen

## Magia beltza

duelako, horri nahi den gaitza edo kaltea eraginez.

Ik. Erlijioa; Madarikazioa, 3; Begizkoa; Superstizioa; Otoitza; Aztiapena; Aztia; Sorgina; Sorginkeria; Adurra.

Paulo Agirrebaltzategi

## Magia beltza

Sorginkeria ere esaten da. \*Deabruaren eta izpiritu gaiztoen indarraz baliatuz, inori gaitz edo kalteren bat erakartzen dio-na, baliabide edo errito magikoak erabiliz.

Ik. Magia; Madarikazioa, 3; Sorgina, 2.

## Magia naturala

Izadiko indar inperzonalei eragiteko erabiltzen da. Magia zeremonialaren kontra-kotzat jotzen da.

Ik. Magia.

## Magia zeremoniala

Izadiko indarrak ezik, naturaz-gaundikoak ere deituz eta horiei eraginez, ondorio magikoak lortu nahi dituena. Magia naturala-ri kontrajartzen zaio.

Ik. Magia.

## Magia zuria

Norberarentzat, inorentzat edo gizartea-rentzat mesederen bat erakartzekotan, baliabide magikoak erabiltzen dituena: euriari eragiteko, e.b.

Ik. Magia.

## Magnificat

Ik. Handiesten du.

## Māhayāna budismoa

Iparaldeko budismoa ere deitu ohi da: India iparraldean, Tibet-en, Asia ertaldean, Txinan, Korean eta Japonian zabaldua.

Budismoaren adar nagusia da, \*Hinayana ibilgailu txikia deritzanaren kontra, \*salbamenerako ibilgailu handia eskaintzen due-na: \*monakoei ezetik, \*laikoei ere zabalik dago ibilgailu eta bide hori; teknika konplexuen bidez, nork bere bururi uko-egitea eta hori menperatzea baino gehiago, Budaren urri-kaltasuna eta \*nirvana-rako barkamen-bide nabarmentzen ditu.

Ik. Budismoa; Bhakti.

## Mahats-mordoa

Kristauen artean Kristoren sinboloa da, bereziki \*eukaristiako ardoarekin lotua. Kristok \*odola emateko bere burua lauskitzen

du \*oparian, mahats-mordoa ardoa emateko lauskitzen den bezala.

## Mahdî

Juduek sinesten duten Mesiaren antzekoa da. Musulmanek sinesten dute, azken garaian Mahdî etorriko dela munduan zuzentasunezko erreinua eraikitza eta mundu osoa \*islamismora aldatzera. Islamismoko joera ezberdinen arabera, pertsonaia historiko horrekin ala harekin berdinkatzen dute Mahdî: Moise-rekin, Jesusekin, Ali-rekin, Mahomet-ekin, etab.

Sineste horrek badu sarritan \*milenaris-moarekin zerikusirik.

## Mahometismoa

Ik. Islamismoa.

## Maiatzeko bazkoa

Ik. Mendekostea.

## Mairuak

Euskal mitologian horrela izendatzen dira hainbat lekutako ipuin eta sinestetan antzinako jende paganoak. Beste lekutan \*jentilak izena ematen zaie horiei.

Toponimian mairu hitza daramaten leku-izen asko agertzen da: Mairumendi (Artaxona), Mairuelegorreta (Gorbearen oineko haitzuloa), Mairubaratz (Oizartzun), Mairuetxe, etab.

Bataiatu gabeko haurra ere mairutzat hartu izan dute.

## Mairubaratza

Harrespila edo cromlech-a esateko beste izen bat; bereziki Oizartzun aldeko \*harrespilei ematen dieten izen propioa.

## Maisua

1. Erlijioetan maiz erabiltzen den hitza. Erlijiozkoan omen handikoa da, zabal-tzen duen mezuari nabarmenki irakaspen-kutsu eta zentzua ematen diona. Israelen, \*lege santuaren irakasleei ematen zieten titulu hori. Ik. Errabinoa.

Erlijioen historian bereziki maisuen tankera hartu dute Budak (Buddhak) eta Konfuzioak. \*Jesukristok ere sarritan maisuaren jarrera hartzen du. Ebanjelioan maiz ematen diote \*Rabbi deitura. Eta haren jarraitzaileei ikasle edo dizipuluak izena ematen diete. Ik. Jaunaren dizipuluak.

2. Elizaren hizkeran maisu-maistraren titulua ematen diote nobizeen eta erlijiosogaien hezieraren ardura nagusia duenari.